


“Hemen nago, bidal nazazu”(Is 6, 8)



MISINOETARAKO ELIZBARRUTIKO ORDEZKARITZA

Plaza Nueva, nº 4 – entreplanta

48005 BILBAO Teléfono 94 401 36 99

E-mail misiobi@bizkeliza.org

HEMEN NAGO, BIDAL NAZAZU – HAURREN KATEKESIRAKO GIDOIA

HELBURUAK:

- Jesusek gure bizitzan duen presentziaz jabetzea
- Gure inguruan prestasun-jarrerak eta misiolari-jokabideak sustatzea
- Konpromiso bat zehaztea

KOKATU

Domundaren gaia abiapuntutzat hartuta, egin dezagun solas neska-mutilekin:

Zer da Domunda? Misiolaririk ezagutzen al duzue? Zer egiten dute misiolariak?

Gaia hau da: «Hemen nago, bidal nazazu». Biblian, Domundeko pasarte hau dator jasota.

IKUSI

«Hemen nago, bidal nazazu»

- Nori buruz ari da? Zer egoeratan esan genitzake hitz horiek?
- Demagun partida batean gaudela (futbolean, saskibaloian edo beste kirol batean), eta gu aulkian gaudela, entrenatzaileak esan orduko jokatzera ateratzeko prest, eta irrikaz gaudela zelaira ateratzeko, parte hartzeko eta taldeari laguntzeko. Nola prestatuko ginateke? Zein izango litzateke gure jokaera? Nori egingo genioke kasu?
- Pandemia-garaiotan ere pertsona batzuk prest daude behartsuenen eta ahulenen alde lana gogor egiteko.

ENTZUN

Mk 4, 1-9 Ereilearen parabola. Bideo hau edo besteren bat baliagarria izan dakiguke:

<https://www.bing.com/videos/search?q=par%3a1bola+del+sembrador&ru=%2fvideos%2fsearch%3fq%3dpar%25c3%25a1bola%2bde%2bsembrador%26%26FORM%3dVDVXX&view=detail&mid=0D7A7520D7FF225A34200D7A7520D7FF225A3420&&FORM=VDRVSR>

Iruzkina

Pentsa dezagun gutako bakoitzean hazi batzuk erein dituztela. Saia gaitezen fruitua eman dezaten. Horretarako, garrantzitsua da haziak lur ona izatea eta sustraiak botatzea.

JARDUERA: Gure zuhaitza

Zuhaitz bat marraztuko dugu, bakoitzak berea, lur onean erori den hazitik atera dena, baina pixkanaka marraztuko dugu, zatika. (Ikusi irudia)

5 Hostoak:

Hostoak adarretan jaiotzen dira,
eta fruitua
izaten dute ondoan.
Gure hostoak gizaki hobeak
izaten laguntzen diguten
pertsona garrantzitsuak dira:
gure ametsak fruituekin lotzen
dituzte.

6 Fruituak:

Zuhaitzak opari gisa
eskaintzen dizkigu
fruituak.
Fruituen ondoan, zure
ingurua hobetzeko besteei
eskain
diezaiekezuna idatz
dezakezu.

4 Adarrak:

Adar batzuk meheak izaten
dira; lodi eta
sendoak, beste batzuk.
Gure adarrak gure ametsak
izan daitezke. Zure ustez,
nolako izango da
mundua handia izaten
zarenean? Zer izan nahi duzu
30 urterekin? Adar batzuk
marraztu, eta adarretan
amets batzuk idatzi.

3 Enborra:

Zuhaitzaren
zatirik sendoena eta
gogorrena da.
Gure enborra gure izaera
da (Pentsatu
zure eta zure lagun hiru
ezaugarri positibo, eta
idatzi kolore batez).

DOMUND**Hemen nago, bidal nazazu**2 Sustraiak

Zuhaitzaren euskarria dira. Lurrean ondo sartuta egoten dira.
Zuhaitz batekin konparatuko bagina, zein lirateke
gure sustraiak, gure euskarria?
Zaintzen gaituen eta hazten laguntzen
digun familia dugu sustrai (Sustraietan
haien izenak jarriko ditugu).

1 Lurra:

Zuhaitza
jaiotzen den lekua da, eta inguratzen
duena.
Guk ere badugu gure lurra. Izan
daiteke gure etxea, gure ikastetxea
edo lagunekin elkartzen garen
parkea (Pentsatu
zure lagunengan. Zer da zure
lagunetatik gehien gustatzen
zaizuna?).

GOGOETA:

Dagoeneko prest daukagu gure zuhaitza, gure bizitzaren zuhaitza. Zuhaitz bakoitza, bizitza bakoitza bezala, bakar eta berdingabea da.

Marrazkiak mahai gainean jarri, eta ikaskideei erakutsiko dizkiegu. Zuhaitz horietan, gurasoak eta anai-arrebak jarri ditugu, guretzat garrantzitsuak diren pertsonak. Gure amets eta balioak ere ipini ditugu.

Baina nola hazten da zuhaitza? Nondik datorkio indarra? IZERDIA du zuhaitzak indar-iturri.

Guri nork laguntzen digu hazten? Nor egoten da beti gure ondoan? Zein da gure izerdia? Gure izerdia Jainkoa da, MAITASUNA. Zuhaitz osoan barna dago. Ez da ikusten, baina garrantzitsua da gure zuhaitza sendo haz dadin eta fruitua eman dezan. Gu ere zuhaitzak gara, eta Jainkoa gugan dago. Konturatzen al gara horretaz?

Ametsez hitz egin dugu, mundua hobetzeaz. Gure talentu eta balioek amets hori egia bihurtzen lagun diezagukete.

Zer fruitu espero ditu JAINKOAK gugandik? Itzul gaitezen Domundaren gaira: «Hemen nago, bidal nazazu». Nora bidaltzen gaitu? Zer egiteko dauka guretzat prestatuta?

Historian zehar, horrela jardun dute misiolariak. Pandemia-garaiotan, misiolariak behartsuenen ondoan egon dira. Horrelako kasurik ezagutzen al duzue?

Gertuko norbaiten (Jaione) bideo labur bat aurkezteko une egokia izan daiteke honako hau.

Elkarriketa: Nolakoa litzateke beren zuhaitza? (familia, inguruko jendea, ametsak, adibideak, fruituak...). Erraza al litzateke «Hemen nauzu, bidal nazazu» esatea? (aipatu beldurrak, zailtasunak)

Eskatu Jaioneri, beren zuhaitza egiteko, eta taldeari erakutsi. Horren inguruan solasean aritu.

JARDUN

Inoiz pentsatu al duzue misiolari izateko aukeran?

Has gaitezen oraintxe misiolari izaten!

Post-it batean, haur bakoitzak aste honetarako konpromiso bat idatziko du, ingurua hobetzen laguntzeko (etxea, ikastetxea...). Prest gaudela adierazten duen zerbait. Zertan eskain dezaket nire burua? Mandatu bat egiten, adiskide bati laguntzen...

Koloretako *Post-it* eraman, bertan idatzi eta zuhaitzean itsatsi. Zuhaitzaren prozesua etxean azal dezaten.

Ikasi duguna.



“Hemen nago, bidal nazazu”(Is 6, 8)



MISINOETARAKO ELIZBARRUTIKO ORDEZKARITZA

Plaza Nueva, nº 4 – entreplanta

48005 BILBAO Teléfono 94 401 36 99

E-mail misiobi@bizkeliza.org

AQUÍ ESTOY, ENVÍAME – GUIÓN PARA INFANCIA

OBJETIVOS:

- Reconocer la presencia de Jesús en nuestra vida
- Fomentar actitudes de disponibilidad y talante misionero en nuestro entorno
- Concretar un compromiso

AMBIENTACIÓN

Tomamos como punto de partida el lema del Domund e iniciamos un diálogo con los niños y niñas:

¿Qué es el Domund? ¿Conoces algún misionero? ¿A qué se dedica un misionero?

El lema es “Aquí estoy, envíame”. En la Biblia encontramos esta frase del Domund.

VER

“Aquí estoy, envíame”

- A quién se refiere. En qué situaciones podríamos emplear esa frase.
- Pensemos en un partido de fútbol, baloncesto u otro deporte: algunos estamos en el banquillo, pero siempre preparados para que el entrenador nos diga que salimos a jugar para ayudar al equipo porque es algo que valoramos, que nos entusiasma y queremos participar: ¿Cómo nos preparamos? ¿Cuáles son nuestras actitudes? ¿A quién le hacemos caso?
- También en este tiempo de pandemia hay personas que están dispuestas a trabajar duro a favor de las personas más frágiles.

JUZGAR

Mc 4, 1-9 Parábola del sembrador: nos puede ayudar el siguiente vídeo u otros.

<https://www.bing.com/videos/search?q=par%3a1bola+del+sembrador&ru=%2fvideos%2fsearch%3fq%3dpar%25c3%25a1bola%2bdel%2bsembrador%26%26FORM%3dVDVXX&view=detail&mid=0D7A7520D7FF225A34200D7A7520D7FF225A3420&&FORM=VDRVSR>

Comentamos

Vamos a pensar que en todos nosotros también han puesto diferentes semillas y vamos a intentar que den flores y frutos buenos para ello es importante que echemos buenas raíces.

ACTIVIDAD: Nuestro árbol

Invitamos a cada participante a pintar su árbol, que ha salido de una semilla caída en buena tierra, pero lo vamos a hacer despacio y por partes. (Ver ilustración adjunta)



REFLEXIÓN:

Ya tenemos nuestro árbol, el árbol de nuestra vida. Cada árbol, como cada vida, es único, distinto a los otros.

Mostramos los dibujos a nuestros compañeros y compañeras colocándolos sobre la mesa. En estos árboles habéis tenido presentes a vuestros padres y hermanos y hermanas, a las personas que son importantes. También habéis expresado vuestros sueños, vuestros valores...

Pero ¿qué es lo que hace que un árbol crezca? ¿de dónde le viene su energía? La SAVIA es lo que nutre al árbol.

En nuestro árbol ¿quién nos ayuda a crecer y está siempre a nuestro lado? ¿cuál es nuestra savia? Dios, que es AMOR, es la savia y está presente en todo el árbol: no se ve, pero es importante para que nuestro árbol crezca robusto y llegue a dar frutos. Nosotros también somos el árbol y Dios está presente en nosotros ¿lo notamos?

Hemos hablado de nuestros sueños: hacer un mundo mejor. Cada uno de nuestros talentos y valores puede contribuir a hacer realidad este sueño.

¿Qué frutos espera DIOS de nosotras y nosotros? Volvemos al lema del Domund "Aquí estoy, envíame". ¿A dónde nos envía? ¿qué misión nos tiene preparada?

A lo largo de la historia los misioneros y misioneras también han respondido así. En este tiempo de pandemia los misioneros también han permanecido junto a las personas más desfavorecidas ¿Conocemos a algún caso?

Puede ser el momento de presentarles un vídeo breve de alguien cercano (Jaione)

Diálogo: ¿Cómo sería su árbol? (familia, gente de alrededor, sus sueños, ejemplos, frutos...), ¿Sería fácil decir "Aquí estoy, envíame"? (miedos, dificultades)

Pedir a Jaione que hagan su árbol y mostrarlo al grupo. Dialogamos.

ACTUAR

¿Hemos pensado alguna vez en ser misioneras/os? ¡Vamos a empezar desde ahora a ser misioneros!

En un post it cada niño/a escribirá un compromiso para esta semana que ayude a mejorar el entorno (en casa, en el cole...). Algo que muestre disponibilidad como el lema del DOMUND ¿A qué me puedo ofrecer? Hacer algún recado ayudar a un/a compañera...

Llevar post it de colores para que escriban, lo doblen a modo de flor y lo peguen en su árbol. Se les pide que expliquen en casa el proceso de su árbol. Lo que han aprendido.

